



Espedientea: OT-005/11-DOT-A

EAE

LAGen aldaketa, bizitegi-
kuantifikazioari dagokionez.

Expediente: OT-005/11-DOT-A

CAPV

Modificación de las DOT,
relativa a la cuantificación
residencial

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE
ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN
IDAZKARIAK

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRE-
TARIO DE LA COMISIÓN DE
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL
PAÍS VASCO.

ZIURTATZEN DUT: Euskal Autonomia
Erkidegoko Lurralde Antolamendurako
Batzordean, otsailaren 18an, 2/2015
Osoko Bilkuran, besteak beste, honako
erabaki hau hartu zuten, kideen gehiengo
osoa eratzen zuten bertaratutako
gehiengo osoak:

CERTIFICO: que en la Sesión 2/2015 del
Pleno de la Comisión de Ordenación del
Territorio del País Vasco, celebrada el día
18 de febrero, se adoptó, entre otros, por
mayoría absoluta de los asistentes que
conformaban la mayoría absoluta de sus
miembros, los siguiente acuerdo:

“I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:

**“I.- En materia de Ordenación del
Territorio:**

1.- “Lurralde Antolamenduaren
Gidalerroen (LAG) aldaketa, Bizitegi-
kuantifikazioari dagokionez” espedienteari
aldeko txostena ematea, horrek behin-
behineko onespena jaso baino lehen,
Euskal Herriko Lurraldearen
Antolamendurako maiatzaren 31ko
4/1990 Legearen 10. artikuluan
ezarritakoarekin bat, eta Lurraldearen
Antolamendurako Artezpideen,
Lurraldearen Zatiko Planen eta
Lurraldearen Arloko Planen funtsezkoak
ez diren aldaketak onartzeko prozedura
arautzen duen irailaren 9ko 206/2003
Dekretuaren 3.8. artikuluan xedatutakoari
jarraiki.

1.- Informar favorablemente con carácter
previo a su Aprobación Provisional el
expediente de “Modificación de las
Directrices de Ordenación Territorial
(DOT) relativa la Cuantificación
residencial”, de acuerdo con lo
establecido en el artículo 10 de la Ley
4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación
del Territorio del País Vasco, y en el
artículo 3.8 del Decreto 206/2003, de 9 de
septiembre, por el que se regula el
procedimiento para la aprobación de las
modificaciones no sustanciales de las
Directrices de Ordenación Territorial,
Planes Territoriales Parciales y Planes
Territoriales Sectoriales.

2- Erabakia Eusko Jaurlaritzako
Ingurumen eta Lurralde Politikako
sailburuari helaraztea, espedientearen
behin-behineko onespena eman dezan,
206/2003 Dekretuaren 3.8. artikuluan
adierazitakoarekin bat, 4/1990 Legearen
10. artikuluari dagokionez.

2.- Elevar el acuerdo a la Consejera del
Departamento de Medio Ambiente y
Política Territorial del Gobierno Vasco,
para que se proceda a la aprobación
provisional del expediente de conformidad
con lo señalado en el artículo 3.8 del
Decreto 206/2003 en relación con el
artículo 10 de la Ley 4/1990.

II. Espediente hau behin betiko onartzeko,
eskumena duen organoari ondokoek
egindako txostenak bidaltzea: Abiazio
Zibileko Zuzendaritza Nagusia (I.
eranskina), Bizkaiko Foru Aldundiko Udal
Harremanetarako eta Hirigintzarako
Zuzendaritza Nagusia (II. eranskina), eta,
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta
Hirigintza Zuzendaritza (III. eranskina).
Ziurtagiri horiek erantsita doaz.”

II. Remitir al órgano competente para la
aprobación definitiva del expediente los
informes emitidos por la Dirección
General de Aviación Civil (Anexo I); por la
Dirección General de Relaciones
Municipales y Urbanismo de la Diputación
Foral de Bizkaia (Anexo II) y por la
Dirección de Medio Ambiente y
Urbanismo de la Diputación Foral de
Araba (Anexo III), que se acompañan a la



presente certificación.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2015eko otsailaren 18an.

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 18 de febrero de 2015.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN
IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga